

## GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA (PREBENTZIOA) LAN-POLTSA HANDITZEKO HAUTAKETA-PROZESUA

- OPOSIZIO FASEKO BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK
- MEREZIMENDUEK AURKEZTEKO EPEA

2021eko uztailaren 14an egindako bileran Gestio Teknirikarien Eskala (Prebentzioa) lan poltsa handitzeko hautaketa prozesuko epaimahaiak, aipatutako hautaketa prozesuko ariketa bakarreko probak ebaluatu ditu, eta deialdiaren seigarren eta zortzigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko gerentearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakia), epaimahai honek honako erabaki hauek hartu ditu:

**Lehenengoa.-** Gestio Teknirikarien Eskala (Prebentzioa) lan poltsa handitzeko hautaketa prozesuaren oposizio fasearen behin-behineko emaitzak ezartzea. Lehiakideek emaitzak lan-eskaintzen atarian kontsultatu ditzakete.

**Bigarrena.-** 5 lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezzen, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Erreklamazioak epaimahai kalifikatzaileari igorriko zaizkio, jakinarazpenotarako helbidea honako hau izanik, EHUko Bizkaiko campusean, Pertsonalaren gerenteordetza, AZPren zerbitzua, Hautaketa eta Hornikuntza. Biblioteka eraikinean. 2. solairua (Sarriena auzoa, z/g, 48940 Leioa).

Horren arabera erreklamazioa egin behar dutenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dute erreklamazioarekin batera, hurrengo puntuan zehaztu bezala.

**Hirugarrena.-** Oposizio faseko behin-behineko emaitzen erreklamazioen aurkezpena eta gainditu dutenek, merezimenduak egiaztatzeke dokumentuen aurkezpena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitakoaren arabera, eskaera eta dokumentuak ezarritako epearen barruan aurkeztu behar dira, ahal den guztietan UPV/EHUko erregistro elektronikoen bitartez: <https://egoitza.ehu.es/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean "Gerentzia" aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: a) Izenperen ziurtagiri digitala; b) UPV/EHUren txartela (Izenpe); c) NAN elektronikoa; edo, d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, beste toki hauetan ere aurkeztu ahal izango da eskaera: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa; b) erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren edo sektore publikoko edozein erakunderen bulegoetan, aurrez aurre, funtzionario publiko gaituaren bidez; c) posta bulegoetan; eta, d) Espainiak atzerrian dituen ordezkartza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.


Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurrez aurre aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Oposizio-fasea behin-behinean gainditu dutenek eta oposizio-fasearen behin-behineko emaitzari erreklamazioa aurkeztu dutenek alegazio-inprimakia aurkeztu beharko dute merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioarekin batera.

Dokumentazio hori aurkezteko epea, 5 lanegunekoa izango da, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta.

Leioan, 2021eko uztailaren 15an

Epaimahaiko idazkaria



Maria Luisa Cantonnet Jordi